

Gabonak dira



Gabonek guri-guri jartzen didate nire animua eta bihotza. Batzuentzat gabonak gure hipokresiaren errainua besterik ez dira, gure ahuldadearen asma-kizuna bizitzan aurrera egiteko eta gure kontraesanei irtenbidea emateko. Horretarako balio balu, behintzat, ez litzateke gutxi izango. Horretarako ere aproposak dira urteko egun guztietan egunez-egun ospatzen edota oroitarazten diguten egun bereziak: minbiziaren aurkako eguna, oinezkoen eguna, giltzurrun bila dabilzanan eguna... guztiek jartzen dute edo jarri beharko lukete gure bizitza eroso kilikan. Ez dago gaizki, ongi dago...

Baina, eguberriak, gabonak fededunontzat beste zerbait dira. Kristauontzat ezinezkoa posible egiten den garaia da. Jainkoa gizaki egina. Eta horixe da gure oinarria. Horren inguruan dauden guztiak horren oroimen eta ezaugarri besterik ez dira. Jainkorik gabeko gabonak bizitzeko eskubidea dugu guztiok. Baina, eguberriaren zuztarra non dagoen oroitzea ez da baxterre okerra. Kristauon zeregina da.

Jainkoa gure artean bizi dela dakigu, baina gabonetan bereziki non eta nola jaio zen oroitzen dugu. Urrun zegoen Jainkoa, zeruetan zegoen Jaun Goikoa, guretar egin zaigu.

Ikatza egiten duen Olentzero, Coca-Colak saltzen digun Olentzero gorria —nire ilobak hala deitzen dio— eta Errege Magoak beraiek norabait doaz, Belenera. Nahi duena behatzari begira gera daiteke. Eta nahi duena estalpearen gainean dagoen

izarrari begira jarri daiteke. Aukeran dago.

Niretzat ikuspuntua baino gehiago den sinismen honek nire izatea eta izaera aldearik alde margotzen du. Erabat aldatzen du Jainko esperientzia bizitzeko modua. Jainkoaren hordagoa erabatekoa da, erabat baikorra. Ezin dugu, beraz, egun hauetako gure kontraesan eta kontsumismoen aurpegi ezkorrean bakarrik geratu. Okerrak zuzendu eta gehiegikeriak eta injustiziak berbideratu behar ditugu. Baina egun hauetan Berri Ona datorkigu.

Batzuentzat «zerbait gehiago» den hori kristauontzat guztia da. Eta kristau garenok hori ez genuke ahaztu beharko. Berezia, ezinbestekoa zena, Jainkoa gizaki egina, eguneroko bizitzan bat eginez.

Hala ikusita, hala biziz gero, dena aldatzen da. Eguberriak bizitzeko modua bera ere.